

BERKELEY ETA EKIALDEA ELERIK GABEKO FILOSOFIA?

Leonor De La Torre, Miren Murua, Arantza Carbonell

Kontatzen ez diren
historioak dira ederrenak.

J. Sarrionaindia

Horrexegatik hunkitzen gaituzte
beharbada gauza ederrek. Definitu
ezin direlako, ezin direlako
etiketatu eta gure apaltxoetan
egonarazi.

Jean-Claude Carriere

George Berkeley eta Tesi Nagusi bi

George Berkeley 1685.ean jaio eta 1753.ean hil zen Oxford hirian. Dublingo Collegean ikasle, irakasle eta apaiza izan zen. Geroan hemezortzi urtez apezpiku lana bete zuen Clyne hirian.

"Giza Ezagutzaren Printzipioei buruzko Tratatu" eta "Hylas eta Filomus arteko hiru solasketa" dira bere obra nagusiak. Bertan tesi nagusi bi ikustarazi zituen:

- Inmaterialismoa.
- Ideia (ele, hizki) abstraktuen gaitzespena.

"Ez dago materiarik –irakurtzen diogu Berkeley-ri– materia ez da ororen kausa mekanikoa gugan dauden ideiena ere ez den bezala". Areago jo zuen esplikazio bila Berkeley-k behin eta berriz izkribatu baitzuen "materia onartzea eszeptiko nahiz ateoaren pentsamendu-iturria onartzea da".


Nominalismo korronteari jarraikiz eta hizkuntzaren gainean landu azterketa zorrotzaz baliaturik pentsalari irlandarrak ondorengo kontsiderazioa proposatu du fermuki, esan nahi baita "ideia abstraktuen existentzia eza".

Bere garaia

Pentsalari oro propioa zaion testuinguru historikoan kokatzen ahalegintzen garen heinean oneskiago asma genezake jakitea zeri erantzutera

etorri ziren behinolako gizaki gogoetatsu haiek. Horregatik Berkeley tratatzerakoan bizi izan zueneko datu eta zenbait ohar ekarriko ditugu gogora, ondorenean laburbilduz:

- Anglikanoak
- Katolikoak



Arestian marraztu zirkulu bitan nabarmendu daitekeenez, nola Ingalaterran hala Irlandan anglikanoen biztanle-kopurua askoz murriztagoa zen katolikoarenarekin erkatuz gero. Herrialde bitan herri xehea nagusiki katolikoa zen. Botere ekonomikoa eta politikoa anglikanoen esku zeuden. Apunta dezagun halaber sasoi hartan Irlanda zela herri boteretsuena bietatik, ez Ingalaterra.

Hortaz erraz pentsatzekoa da gure filosofoa batetik irlandarra zelako eta bestetik anglikanoa zelako ez zuela larrialdi esturik ezagutu, alde horretatik begiratuta behinik behin. Ez genuke ordea ondorio bera aterako John Toland pentsalari irlandarraz mintzatzen hasiko bagina. John Toland-ek gartzela ezagutu zuen,

Zergatik? "Mirakuluen kontra" obra idazteagatik. Bronn apezpikua dago beste muturrean, jainkoa sozialki dela beharrezko adierazten entseiatu zen. Gauzak honela Berkeley halabeharrez kokatzen da fededun eta ez-fededunen arteko liskarrean.

1723. urte aldean Bermuda irletan amerikar indioak ebanjelizatzeke egitasmoa jakitera eman zuen Berkeley-k. Ildo honetan ezin ahantz daiteke XVII. mendean gertatu zela kolonialismoaren hastapena, gaizki deitu "Mundu Berri"ra europarrak heltzean, lurak lapurtzeari ekin ziotenean. Afera horretan zer esan handia hartzen zuten interes ekonomikoek baina ez gutxiago erlijiosoek. Berkeley batik bat interes erlijiosoak eraginda abiatu zen Ameriketara, bere aipu ezagun honetan dioenez: "Inperioak Mendebalderantza zuzentzen ditu bere urratsak".

Gaur bada Kalifornian Berkeley izena duen hiria. Hauxe da hiri bati filosofo baten deitura ematen zaion estrainekeo aldia. Baina bere garaian ez zuen arrakastarik ezagutu Berkeley-k. Puntu hau ondoko erreferentziaren bidez argitzen digu Concha Cogodullo irakasle eta itzultzaileak: "Irakurria baino areago izan da kritikatu Berkeley".

Zisma erlijiosoa eta politikoa

Garai hartatik bi gertakari jaso ditugu, inportante direlako: zisma erlijiosoa eta politikoa.


Ordu artean sostengatu ahal izan den kristau batasunaren galera, porrota, emana dago. Era berean 1648an Westfaliako bakeak amaitu nahi zuen katoliko eta protestanteen arteko tira-bira. Guzti horren emaitza gisa European aldaketa politiko eta erlijioso berriak ezarri ziren. Eliza erreformatuak, (kalbinismoa, luternismoa...) katolizismoarekin parekatu ziren. Bestalde Aita Sainduaren eta enperadorearen meneko herrien batasuna lehertu egin zen. Estatu nazional modernoan agertze garaia da lehenengoz. Testuinguru honetan absolutismoak kritika zorrotzak entzun zituen arren luzaro iraungo zuen geroan ere despotismo ilustratua forman. Estatu nazionalen ernaltzearekin batera hizkuntza nazionalak kultur gorakada jaso zuten. Bestalde 1688.ean Glorizko Iraultza gertatu ondoan Carta Magna delakoak monarkia parlamentarioa ezarri zuen Ingalaterran. Aldi berean hiru botereen banaketa bermatu zen. Tolerantzia erlijiosoak leku hartu zuen irlan. Ikerketarako askatasuna ere zabalgotzen hasia zen.

Berkeley eta filosofoa

Nola sortzen dira ideiak? Descartes eta Locke-n iritzirako ideiak beti dira "zerbaiten ideiak". Horregatik, kopiak direlako, ideia ez da esentzia. Berkeley-k ordea ideiak ez direla "zerbaiten ideiak" defendatzen du, aitzitik ideiak errealak dira. Ideiak existitu egiten dira. Ideiak adimenean dauden objektu sentikorak dira, kualitateak dira.

Nola sortzen dira "ideiak"?



Locke-k :



gorputz objektuek
ERAGITEN DUTE
GORPUTZ-ORGANOTAN



Berkeley-k:



Berkeley-k idatziko du materia ezin izan daitekeela gure ideien kausa. "Bizia ez duenak ezin du adimenean eragin" (175)+. "Pentsatzailea ez den eta aktiboa ez den kanpo-substantzia ezin izan daiteke gure ideien kausa (205)+. "Jainkoak gaitasun kreatiboaren jabe dela aditzera emateko ez du "materiaren" beharrik" (146)+. "Zertarako beharko zukeen aparatua delako hori?" (90). Natura guztia adimenezkoa da. Ez dago materiarik, zentzuen mundua adimenaren morroi da. Baina ohar gaitezen Berkeley-k materiaren existentzia gaitzesterakoan ez duela horrek esan nahi ezer existitzen ez denik. Ideiak existitzen dira.

Berkeley-ren abururako baldin eta Jainkoa onartzen bada materia soberan dago. Materia ukatzerakoan eta mundua adimenean kabitzean ondorio garrantzizko bi ematen dira:

- 1.- Eguneroko esperientziaz gehiago fidatu ahal izatea.
- 2.- Eszeptizismoari aurre egiten zaio. Eszeptikoen argudioa

baita aitortzea gure ideiak okerrak direla gauzak diren bezala erakutsi ezin dutelako. Locke-k "gauzak" eta "ideiak" bi kontzeptu diferente direla defendatzen du, Berkeley-
-rengan gauza bera esanahi dutenez ez dago batere ados" Naranja ez baldin bada materiazko gorputza eta beraz "ideien multzoa" bada orduan egia da naranja existitzen dena, kolorea daukalako, usaina eta zaporea daukalako.

Hautematea - Pertzepzioa

"... Pentsamentuaren objektuek ez daukate existentziarik adimenean ez bada (660). "Soinu bat, figura bat, kolore bat nahiz mugimendu bat existitzen dela uler al daiteke adimenean ez badago, hautemana ez bada? (65)". Ez. Izan ere ideia existitzen dela onesteak esan nahi baitu hautemana izan dela (52)". Ideiak sentsazioan idatzita daude, ezin dira existitu aurrez hauteman dituen adimen batean ez bada (53)".

Zerbait existitzen dela onesteak haxe esan nahi du: ikusten eta ukitzen dudala, uki daitekeela, hautemana izan dela edo izan daitekeela. Inola hatzeman ez daitekeen errealitatea suposatzea kontraesankorra da. Sentipenak eta ideiak hautematen ditugu. Objektu sentigarrien izatea hautemana izatean datza. Errealitatea izpirituala da. "Giza izpiritua edo gizakia ez da hautematen zentzuen bidez, ideia ez delako (150)". Arima ezin da ezagutu ideia medio.

Gauzak ez dira existitzen ideietatik landa, beraz nola dator duda? gauzak ideietatik at bizi direla uste izatetik. Objektua eta sententzia gauza bera direlako. Eta ideia generalak fikzioak dira.

Malenbrachentzat ez dira kontzeptu bera "gauza" eta "ideia". Berkeley-arentzat aitzitik banaezinak dira ondorengo kontzeptuak" gauza = ideia = objektua = sententzia.

Berkeley-k ez du zentzuez dudatzen. Ez du dudatzen dakiguna zentzuei esker dela. Zer da beraz errealitate den hori Berkeley-ren iritzirako? "Entzun, sentitu, ikusi edo zentzu bidez

hartzeman daitekeen hura errealitate da" (206)+. Materiako substantziaren existentzia ukatzen duenean argudiatzen du azalduz esperientziak ez digula frogatzen esperientzia ez den beste zerbait existitzen denik. Esperientziak eta esperimendatzailak daudela da jakin daitekeen bakarra. Berkeley-k esango du ateoak eta materiako substantzia oso lagun izan direla betidanik. "Errefusatu du pentsalariak eszeptizismoa "utikan eszeptizismoa"(123)+. Teoria arriskuetsua zenez alboratu beharra zegoen. Jainkoaren existentzia ukatuko lukeen sistema razionala eta posiblea zelako. Jainkoa eta arimaren hilezkortasuna ukatzen zelarik erlijioak bertan behera joko zuelako. Fedegabeek erabili duten argudio okerra *existentzia absolutua onartzea* da" (200)+.


Berkeley-arentzat beraz ez du zentzurik itauntzeak ea ideiek erakusten dutena ondo erakusten duten ala ez. Ideiak errealak dira. Hautematea eta Izatea gauza bera dira.

Berkeley-k Locke-k markatu zuen diferentzia hura kritikatzeko, esan nahi baita *lehen kalitateak eta



Orduan problema dator:

- nola erakusten dute
 — ondo ?
 — gaizki ?



bigarrenak*. Atributu guziak direla zentzuekiko erlatibo eta adimenaren menpeko baiesten du, koloreak eta usainak diren bezalaxe.

Kualitateek –guziek– existentzia daukate adimenean (60)". "Maila berean kualitate guziak dira sentsazioak eta errealak (114)". "...ezin suposa daiteke euren existentzia hatzemanak ez badira (115). Sentsazioa eta objektua gauza bera dira. Banaezinak (1630)+". Eta sentikorra dena existitu egiten da (206)+".

"...Hedadura, figura eta mugimendua ezin uler daitezke gainontzeko kualitatetatik banatuta (60)". Ez dago, ez du existitzen, batasun absoluturik (131) (60)". Existitzen duen guzia partikularra da.

*** Zer da lege zientifikoa?**
Deskripzio berriak egitea.

*** Zer da fenomenoaren esplikatzeko?**
Ideiek nola eragiten dituzten adieraztea.


Eta zer gertatzen zaio fisikari materia kendu diogunean? Lege guztiak beti dira deskripzio berria. Ezagutza erlatiboa da, ez

absolutua. Zientifikoek ez dute gauzen berezko izaera ikertzen zeren "berezko izaerik" egon ez baitago. Bakarrik dago mundua den bezala. Horrela teoria zientifikoak ez dira ezereko absolutu (positibismoaren printzipioetako bat). Teoria zientifikoaren inportantzia "aurreanak" lortzea da. "gerta daitekeena auresatea. (119)".

Garai hartan uste zabaldua zen teoria zientifikoek egiak agertzen zituztela. Zientzia gauzen berezko izaera hatzematuko gai zela uste zen. Uste horren aurka altxatzea garai hartan zientifikoek zeukaten izen ona zapaltzea zen.

Beraz teoria zientifikoak ez dira ezereko absolutu, eta bai erlatibo. Mundua erreal da erlatiboa delako, adimenaren menean dagoelako.

Jasotzen ditugun kualitateak aldakorrak direnez "zientifikoek egiten dutena aurreanak lortzea da (120)". Teoria zientifikoak ez dira ezereko absolutu. "gorpuskuluak existitzen direla suposatzeak laguntzen digu (praktikoa zaigu eta baliagarria), baina horrek ez du esan nahi hori egia denik".




- Sortak eginez, kualitateak bilduz, esaten ditugu gauzak.

"...naturan lege orokorrak arakatu ditzakegu, ikertu, deduzitu, ... baina kontuz! ez dut esan "frogatu" (120).

Kontzeptugintza da lehen manipulazioa

"Berkeley eta Hizkuntza" ondorengo atala tratatu aurretik egoki ikusten dugu Berkeley-k hizkuntzari buruz zituen zenbait iritzi lerro hauetara ekartzea. Berkeley-k esana da kontzeptugintza dela lehen manipulazioa.



Mundua ez da existitze-n hizkuntzan daukaguna baino. Hortaz mundua ez da existitzen errepresentazioetan eta ideietan daukaguna baino. Ordu artean uste zen "mundua hor dagoela" eta mundua interpretatu egin behar zela, gainditu. Berkeley-k, aitzitik, subjektu/objektu dikotomia gainditzen du. Berari entzungo diogu esaten ez dagoela objekturik aurrez aurre, subjektuaren baitan baizik. Pentsamendu hori bere egin zuen positibismo logikoak. Mundua ez dago aurrez aurre, ez dago hor kontra. Mundua subjektuaren baitan dago.

Dauzkagun esperientziak Jainkoak esanak eta ipiniak dira. Ez dira gure ideien kausa kanpo-objektuak Locke-k defendatu zuen modura. Berkeley-k aitortu zuen "... ideia adimenean egotea Sortzailearen borondateagatik da". Gauzak (=ideiak) aldakorrak dira, konbinatzen dira baina ez ausaz, ez nolana. Ordena baten barruan baizik... (203)+".

"Ideiak aldakorrak dira (185)+".

Hona beraz ondoren Berkeley-k izkribatuak utzi dituen lerro hauek:

"Filonus: Zehazki hitz eginez, Hilas, ukitzen dugun objektua ez dugu ikusten eta gainera ez da objektu berbera atzematen mikroskopioz edo begi hutsez ikusita. Baina onartuko balitz aldaketa bakoitza nahikoa dela klase berri bat edo indibiduo berri bat eratzeko, hitzen kopuru amaigabeak edo hauen nahasketak mintzaezin bihurtuko lukete hizkuntza. Horregatik, eta begien bistakoak diren beste eragozpen batzuri bezalaxe aurrekoari ere aurre egiteko, gizonek konbinatu egiten dituzte zentzu desberdinez edo zentzu berberaz, baina une edo egokiera desberdinetan atzeman eta naturan erlazio moduren bat, nola koexistentziakoa hala segidakoa, daukatela irizten diren ideiak eta horiei guztiei izen bat ematen diete eta gauza bakartzat hartzen dituzte. Aurrekoak berekin dakar ezen nire gainerako zentzuen bidez aztertzen dudanean aurretiaz ikusitako gauzaren bat, hori ez dudala egiten begiez ikusi dudan objektu berbera hobeto entelegatzeko, zentzu baten objektua ez denez gainerako zentzuez atzematen. Eta mikroskopio batetik dakusadanean, ez dut egiten begi hutsez ikusi dudan hura ongiro atzemandako objektua lehenengoarekiko arras diferentea baita; aitzitik, zer ideia dauden elkarloturik ezagutzea izango da nire jomuga bakarra kasu biotan. Eta esan ohi da gizaki batek ideien arteko lotura zenbat eta gehiago ezagutu areago ezagutuko duela gauzen berezko izaera. Zer gertatzen da, bada, gure ideiak aldakorrek direnez? Zer, gure zentzuak erasaten dituzten itxurak egoera


guztietan berberak ez direnez? Hala ere aurrekotik atera behar dugu, ez zentzuez fido izan behar dugula, baina ezta kontraesanean daudela ere beren baitako edo beste zerbaitekiko, izen bakoitzak benetako izaera indibiduala, aldaezina, atzemanezina izendatzen duenari buruz zuk daukazu aurriritziarekiko baizik. Aurriritzi honen jatorria, gizonek ideia desberdinez adimenak gauza bakar batean bildu izan balitu bezala hitz egiten dutela esaten duen hizkuntza arruntari buruzko ulermen batean datza, antza denez. Eta, jakina, aski arrazoi dago filosofoen hainbat kontzepzio erratak ere jatorri berbera dutela esateko; izan ere, kontzeptuetatik baino euren gustu eta esperientziaren arabera eguneroko bizitzaren ekintzetan elkarbizi ahal izan eta eraginkor izateko hitzetatik abiatuz, espekulazioa bat ere kontutan hartu gabe, jende arruntek euren teoriak osatzeari ekin zioten."

"Tres diálogos entre Hilas y Filonus"
GEORGE BERKELEY
(1990. Alianza Editorial)

Berkeley eta Hizkuntza

Badakigu, Berkeley-k esanda, ideia beti dela partikularra. Ideiak partikularrak izanik ere teoremak egin daitezke. Teoremak burutzerakoan ideia orokor bihurtzen dugu. Fikzio bat eraikitzen dugu, aurreanak lortzeko balioko digun fikzioa. Zer da abstrakzioa? Errorea da.

"Gorputzik gabeko mugimendu baten ideia osatu al dezaket adimenean besterik gabe "mugimendu" hitza



Hizkuntza ERROREA da

ahoskatu dudalako? (113)+". Neurririk gabeko, figurarik gabeko, kualitate sentikorrik gabeko "hedadura"ren ideia abstraktua adimenak osa al dezake?. Kualitateak denbora berean existitzen dira (121)+". Ez da ematen hedadura alde batetik eta mugimendua bestetik. Horregatik dator Berkeley-ren ondorengo aipua: "... baina hitzak alboan uzten direnean hortaz ez dira ideiak baino kontenplazten, hortaz ohartzen gara "Hedadura" ideia abstraktua ez dela existitzen (113)".


Pentsalariak horregatik gomen-datzen du kualitateak ez direla banatuta baleude bezala tratatu behar (121)".

Ordezkatze funtzioak parte hartzen duenean bihurtzen dugu ideia partikularra orokor. Ideia orokorra fikzioa da.

Etengabean fluktuagarriak eta aldakorrek diren "gauzak" -gure ideiak diren bezala- Nola izan daiteke tinko eta iraunkor den zerbaiten kopia?

Berkeley

Idea partikularra da, ezagutza partikularra da, ez absolutua. Ulermena kontestu jakinetan defendatu zuen.



"Gauzak osatzen ditugu "kualitateak bilduz", sortak eginez. Zer da geriza? adimenak "gauza bakarra" osotzen du, inpresio- edo ideia-sorta bat eta izen batez izendatzen du (ikusten ohi duelako batzuek besteen jarraian etortzen direla). Baina gerizarik ez dago. Ohiturak paper inportantea bete du uste horretan. Gerizarik ez dago, dagoena zaporea, kolorea... da, hauek jaso eta guk lotu egiten ditugu sortetan. Baina substantziarik ez dago. Berkeley-k esentziak eta kontzeptu unibertsalak eliminatzen ditu. Abstrakzio oro ezabatzen du.

Maiz mintzatzen da pentsalaria usadioak lengoaian duen eragin bortitzaz "...usadioak egiten du lengoia lengoia. Lengoia moldatu egiten da onartuak diren iritzietara, baina hauek egiazkoenak ez dira (84) (39)". "Zaila gertatzen da usadioaren poderioz erabiltzen ditugun hitzen engainutik askatzea (46). "Gizonek euren burua engainatzen dute sarritan entzun adierazpenak sinisterakoan, nahiz sakonean zentzugabeak diren (85)".

Berkeley-k abstrakzioa errotik ukatzen du, gainera kontraesanezkoa da. "...abstrakzioa ez da beharrezko ez ezagutzan ez komunikazioan ere (39)". Partikularrak diren gauzak izen eta nozioak unibertsalak izatera pasatzen direnean. Horrenbestez esperientzian hartuko da oinarri eta ez abstrakzioan.

Berkeley-k pentsatzen zuen zentzuei emana ezagutzaren oinarria dela eta ez "ideia abstraktuak".

Ekialdea eta hizkuntza

Leok, Mirenek eta Arantxak paralelismoa dakusagu. Paralelismoa hain zuzen Berkeley-ren hizkuntz ikuspegia eta oso aspalditik ekialdeko pentsamenduak defendatzen duen "Barne-Isiltasun"aren artean.

Barne-Isiltasuna ekialdetarrentzat da. Berkeley-arentzat ideiak dira: Ezagutzaren abiapuntua.



Meditazioa
Hitzetatik harantzago dago


"Zen" esaerak dio: "Zerbaitetaz mintzatzen zaren unetik erratzen duzu.

Meditazioan adimena pentsamenduz eta kontzeptuz gabetua dago. Allan Watsek argitzen du: "... meditazioan puntu batera ailegatzen da non hizkuntzak harantzago ezin duen jo,

ezinezkoa baita "HAU" (esatea) seinatzea "HURA"ren kontrastasuna gabe.

"Zen" harro azaltzen da; izan ere "hitzik gabekoa delako, esplikaziorik gabekoa".

Budak, Fritjof Capra, Allan Wuats eta Krishamurti pentsalariek, besteak beste, gure organismoak ezaguerazko modu trebeak badauzkala onartzen dute. Eta modu hauek hitzetatik harantzago doaz. Ildo honetan hona hemen F. Capraren gogoeta: "Dela esperimentu zientifiko baten interpretazioa, dela hautemate mistiko baten interpretazioa, interpretazioak zehazgabeak eta osagabeak dira halabeharrez.



"Gizakiak terminotan pentsatzen du, hortaz pentsamenduak zatitu egiten du naturan banaezina dena. Pentsatzea sailkatzea da, sail eta atal intelek-tualetan zatikatzen du esperientzia. Baina ez da sailik existitzen naturan".

Allan Wuats

Hatzematen duguna (pertzibitzen dugun hura) ez da figuraren bat, erlazioa baizik "figura/hondo" erlazioa.

Unibertsoa ez dago giza pentsamenduak sailkatzen dituen gauza independentez osatua. Hizkuntzaren zorrozatasuna ordaindu egiten dugu, prezioa da: ikuspuntu bakar batetik baizik mintza ahal izatea.

Hizkuntzak badu egitura eta badu gramatika ere, baina hauek mundua zatikatzen dute gauzetan, arras diferenteak diren gertaeratan.

Hizkuntzak sikatu, diseatu eta apurtu egiten du esperientzia. Watsek baieztatu du mundu razionalak sailkatu, kuantifikatu eta klasifikatu egiten duela. Ildo honetan gaineratu dezagun fisika modernoaren ordezkarietakoa den Werner Hussenbergen kontsiderazio hau: "Hitz nahiz kontzeptu oro, arras argia dela dirudigun arren, aplikazio mugatua du".

Gainbegiratzen ari garen Ekialdetik orain ipuin baten aipamena. Bada "herri zuria" izeneko ipuina, zeinaren esanahi behinena Trinitatearen Misterioa deskribaezina dela adieraztea den, Jainkoaren ikuspegia ere hala den bezalaxe.

"Tathagata" titulu-deitura jasotzen dute zenbait budek. Tathagataren argia Jainkoaren argia dela irakurtzen diegu. Ekialdeko maisu hauek "TAT" eta "THATAL" hitzak darabiltzate komunikatzerakoan elkar. Hizkuntza ahalik eta gutxien baliatzeko



nahiarekin erabiltzen dituzten hitzak dira. Nahi dutelako errealitatea deskribitu gabe eta sailkatu gabe seinالاتu.

Isiltasun horren berri ere eman zuen Budak, berak esana da "Adieraz daitekeen Taoa ez dela Taoa". Horrela Budari galdetu ziotenean zer zen Egia orduan burua itzuli zuen eta aldendu egin zen, isilik.

Yin-Yan marrazkiari kasu eginez ekialdearrek gaiztotasun absolutua, ontasun absolutua eta gisako alternatiba zehatzak abstraktuaren baitan baino ez direla existitzen kontsideratzen dute. Mundu erreala aitzitik bribaziozkoa da, alternantziatzkoa, goratzen eta gero abailtzen den uhinaren antzekoa da.

Zer da Jakintza Ekialdean? bi poloen arteko (bizia-heriotza, goia-behea) oinarrian datzan batasunaz ohartzea da Jakintza ekialdearentzat.

Azpimarratzen ari garena bermatzeraz dator Arthur Eddington. Egungo astrofisiko honek ezin hobekiago

deskribatzen digu zer den atomoa: "Ezezaguna den zerbait da, eta ez dakigu zer egiten duen". Antza desberdintasunek toki gehiago dute hizkuntzan ezer deskribatzen den hartan baino.

Zabalik gelditu nahiko lukeen amaiera honetan 2 aipu jaso ditugu orrialde hauetan zehar hausnartutakoak geroan ere eztabaidarako jarraipenik ukan dezan:

Zentifikoek orain gutxi azaldu duten datua:

- "Harridurak mende honen hasieran agertu ziren. Zientzilariak ohartu egin ziren partikula finko eta solidoak ez zirela atomoak. Atomoak hutsak ziren eta etengabeko bibrazioan dihardute. Gainera, materiaren mailarik barnekoenetan, guztia aldatzen da behatzaileak behatzeari ekinez gero".

Erakutsi dugun "Berkeley eta ekialdea" paralelismo bera begitandu

du Anton Wilson-ek, "Zientzia eta Mistizismo arteko topaketa" titulupean aurtengo irailean argitara eman duen aipu honek erakusten duenez:

- "Orain kontsidera dezagun Bohm doktorearen hirugarren alternatiba hau: *espazioaz eta

denboraz ditugun kontzeptuak aldatu beharko dira orain ulertu ezin dugun manera batez*. aipatu ideia lehenagotik filosofo askok landutakoa da, bereziki budistak ekialdean eta Berkeley apezpikuak...*".

Bibliografia

CAPRA, F. *El Tao de la física*. Madril, Luis Cárcamo editor, 1.987.

WATS, A. *Las dos manos de Dios*. Bartzelona, Kairos, 1990.

Conciencia Planetaria, 6. Zbk, 1991eko irailean.

Nueva Conciencia, ale berezia, 1990.

Unescoren Albistaria. 6. zbk. Jean Claude Carrieren aipua.